

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko maiatzaren 6an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onartu zen Laudion erroldatutako biztanleek 2021/2022 ikasturtean, 2021eko urriaren 1etik 2022ko ekainaren 30era egindako euskarazko ikasketak diruz laguntzeko deialdia

BDNS (Identif.): 628533

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/628533>).

Lehenengoa. Onuradunak

Laudion erroldatuta dauden pertsona fisiko guztiak izan daitezke, betiere, deialdian azaltzen diren eskakizun guzti-guztiak betetzen baldin badituzte.

Bigarrena. Helburua

Laudio Udalak Hizkuntza Normalizazioa eta Identitatea Zerbitzuaren bitartez euskara ikasteko norgehiagokako araubidean ematen dituen dirulaguntzen esleipena arautzea da. Beka hauek euskara ikasteko egon litezkeen oztopo ekonomikoak saihesteko ematen dira.

Hirugarrena. Ordenantza arautzailea

Deialdi hori Laudio Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzak arautuko du. 2021eko martxoaren 10ean argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (28. zk.).

Laugarrena. Zenbatekoa

2021/2022 ikasturteko eskaeratarako, 34.000 euro.

Bestetik, balizko erreklamazioei aurre egiteko 1.000 euroko kopurua erreserbatuko da, laguntza multzo bakoitzari dagokion diru atala ahituko balitz, baliagarri izateko.

Edozein modutan ere, urte natural berean eskatzaile batek jasotako euskara beken batuketak ezingo du 1.000 euroko muga gainditu.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau ALHAO-n argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2022ko uztailaren 15ean amaitu.

Laudio, 2022ko maiatzaren 6a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE